

Donostian, Diputazio jauregian, 1982.eko Maiatzaren 28an egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko lauetan bere hileroko batzarra. Bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M.^a Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzain osoak. J. A. Arana, J. Etxaide, X. Garmendia, J. I. Goikoetxea "Gaztelu", I. Laspiur, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Aurreko agiri biak onartu dira.

P. Lafitte euskaltzainari Euskal Herriko Unibersitateak atzo egin zion Ohorezko Doktoradutza izendamenagatik zorionak eman dizkio Villasante jaunak, denon poza denbora berean adieraziz.

J. Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain ohorezkoa zenaren hil berriaren kontu eman du gero euskaltzainburuak, eta J. A. Arana Martijak irakurri du haren goratzarre txostena. E. Knörr jaunaren eskariz, omenarriren bat Errioxan noizbait ezartzeko gogoia ikusi da.

Goizeko bilkuraren berri

Bizenta Mogelen mendeurrena ospatzeko egingo diren lanen berri eman da. Euskaltzaindiko emakumeek hartuko dute beren gain igandeko festaren erantzunkizun nagusia. Antolakizun batzordeak, beste alde, Azkoitin izan dituen harremanen azalpena egin du. Gorputz Kristi ondoko zubia baliatuz ekainaren 11an eta 12an egingo den azentuari buruzko saioa Insausti jauregian izango da.

Barrutiaren mendeurrena dela bide aurtengo udan eta eguberriak arte zenbait herritan emango diren antzerki ariketak aipatu dira gero.

J. Caro Barojari gaur Madrilan egiten dioten omenaldirako gomita berandu iritsi da, eta telegrama bidali zaio Euskaltzaindiaren izenean zorionak emanez.

Batzordeen berriak

Argitalpenak. Hiru puntu nagusi aipatu dira: EUSKERA-ren azken alea laster ateratzekoa dela esan du R. Badiolak. Gerra aurreko ale agortuen birrargitalpena ere aurrera doa. Lehen bost aleak ia prest daude. Gero etorriko diren urteetako batzar agiriak ez ziren argitaratu eta dagokien eran sartzea erabaki da. Azkenekoz, IKER 2 libururako lanen bidaltzeko epea ekainaren azken egunean amaitzen dela oroitaraztea komenigarri ikusi da.

Bertsolariak. Inoiz plaza saiorik egin gabeko bertsolari berrien aurkezpena aurrera doa. "A" taldea deitu diote eta azkeneko leihaketa Azkoitin izango da. Itxura oneko bertsolari gazteak omen datoz.

Txostenak

J. A. Letamendiak Donaixti-Ibarren lexiko bilketaz egindako jardunaldien berri zehatz eman du. Galderen zerrendari epez kanpo egindako oharrek eztabaida bizia sortu dute. Batzordeak du azken hitza.

Miren Azkarate mintzatu da gero, zehar galdera eta -BA denborazko perpaus txertatuen adibide zenbaiti buruz. Aita Pedro Antonio Añibarroren haritik oso ondo-re jakingarriak atera ditu.

Eta besterik gabe amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkaria
J. M.^o Satrustegi